



“Peñas Negras” I.I.Z.ren kokapena, denboran zehar lurzoluak jasan dituen zenbait erabilera-aldaketak behatzeko talaia ezin hobe da.

Bi haranen tartean egonik zertxobait naturalagoa den alderdi bat ikus dezakegu, bertan, espezie autoktonoen ale isolatuak eta basarte txikiak, gaur egunean espezie bakarreko landaketak eratzen dituzten berrobianeztapenekin batera agertzen zaizkigularik. Ekialderantz begiratzen duen harana, bere erdialdean aspaldian “Bizkaiko Labe Garaiak” urez hornitzen zuen urtegi batez etenda aurkitzen da.

Iparmendebalderantz, aldiz, askoz zabalagoa den beste haran batetan, zenbait birgune, garraibide eta industriren kokapena dela eta, aipatutako lurzoluaren erabilera-aldaketak modu argiago baten soma daitezke, bere bebekaldean batez ere. Honen adibiderik argiena, Barbadun ibaiaren antzinako padurak eratzen zituzten lursailetan kokatutako petrolio birfindegia izango litzateke.

Beraz, ibilbidean zehar aldaketa hauek ez ezik, Zentru inguruko berezko beste ezaugarri batzuk (meategiak, paisaia karstikoa...) ere, ikusi abal izango ditugu.

Beheko bidetik jarraituz gero, 8 bat minutu ibili eta iturri baten ondotik igaro ondoren, “Picu” antzineko meatzal ustiagunera 2 helduko gara, berau inguratzen duen hesia eta harkaitzetako oxidorearen kolore gorriagatik erraz ezagutuko dugularik. Ustiagune hau, inguruan nagusi izan zen lurrazaleko erauzketa motaren adibide nabaria da. Meategiaren beheko aldean antzineko meazuloetako sarrerak beha daitezke, haietariko batzuk gaur egunean abereentzako uhaska edo babesleku moduan erabiliak.

IBILBIDEA

“Peñas Negras” I.I.Z.tik abiatuz bere atzetik doan bidea hartuko dugu. Minutu pare batean bidegurutze batera helduko gara 1, bertan, bai beheko bidea bai ezkerakoa hartu daitezke.

Leku honetan, Oiola harana eta Triano mendien magalak ikusteko geldiunea egin daiteke, landaretza autoktonoa (haritzak, urkiak, erriberako basoa...) edo koniferen oihaneztapenen berdeune desberdinak ikustea interesgarria delarik. Inguru honetan, meatzal erauzketa motak La Arboledako beste zenbait lekutan baino lurzoruaren eraldaketan eragin txikiagoa izan zuenez, landaretza aberatsagoa izatea posible egin du.



Oiola harana



“Picu” meategia



La Arena hondartzaren ondoko birfindegia (Muskiz)

Ondoren, hesiaren norabideari jarraituz “Picu” zeharkatuko dugu, 5 minututan zela batera irten arte 3, zeinean La Arboleda eta Muskiz lotzen dituen mendiko errepedearen ondoan iturri bat dagoen. Iturritik, bere atzetik igoten duen bidezidorra hartuko dugu eta abaratsu gazteen landaketa bat zeharkatuz



I.I.Z.tik hurbil dagoen paisaia Karstikoa



Burdin oxidoa "Pikuf" meategian

ipar alderantza jarraituko dugu, aurrerago ezkerrean egin eta 5 minututan mendi gaineraino igoko gara **4**.

Kareharrizko gain honetatik, oskarbi denean, ikuspegi ederra beha daiteke:

- Bizkaiko orografiaren alde zabala: Montaña, Punta Lucero, Serantes, Jata, Sollube, Mendibil, Anboto, Pagasarri, Ganekogorta, Gallarraga, Eretza eta Trianoko mendiak (Ganeran, Pico Menor, Pico Mayor eta Alta Galdames, bere magalean "Peñas Negras" kokatzen delarik).
- Itsasadarraren bokalea, portua, ezker alde eta meatzaldeko herriak (Gallarta, Urtuella, Santurtzi, Portugalete), eskumaldekoak (Getxo, Leioa...) bai eta beste gorabehera geografikoak ere (Ereagako hondartza, Punta Galea...).
- Antzineko lurrazaleko meatzal ustiagunea eta herriak (Barrionuevo, Larraineta, Triano, La Arboleda). Bertan burutu zen ustiapenak inguruan izan zuen eragina ikusteko eta I.I.Z. kokatuta dagoen inguru askoz gutxiago eraldatuarekin konparatzeko leku egokia da.

Hemendik aurrera, paisaia karstikoa-ren goiko alde zeharkatuko dugu (lapiaz edo lenarea), euriko urek kareharriaren gainean sortutako modelaketa beha daitekeelarik.



Karsteko pasabideen irteera

Jarraian, bidea, burdingaia ateratzeko harkaitzean zulatutako korridore batzuen artean barneratzen da, "laberinto" izenarekin ezaguna. Metro gutxi batzu ibili ondoren, mahaiak eta jazarlekuak dituen zelai txiki batera irtengo gara. Laberintoa zeharkatzeko behar den denbora 5 bat minutukoa da.

Azkenik, askaldegia moduan egokitutako zelai askoz zabalago batera iritsiko gara, pinudi txiki bat erdian duelarik (Txaparral), berau zeharkatuz, 5 minututan "Peñas Negras" I.I.Z.ra jeitsiko gara.



Goibehea: Ibilbideak ez du goibehe handirik, I.I.Z.ren 460 metroko kota inguruan burutzen delarik.



Ordutegia: Etenik gabe eginez gero, 30 minutu.



Zailtasuna: Oso ibilbide erraza da.

ELEMENTU ESANGURATSUENAK
Paisairen interpretazioa, geologia, landa-
retza, industri arkeologia.